

Now, 2030 Proposamena

2023. urtea inflexio-puntu global eta tokiko
gisa konfiguratzeko, GJHak betetzeko

2023ko martxoaren 15a

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzak eta euskal erakundeek 2030 Agendarekiko konpromisoa hartu dute, GJHen bultzadan eta lokalizazioan laguntzeko erantzukizun osoa hartuz. 2017an, estatukoa ez den munduko lehen gobernuia izan zen Euskadikoa 2030 Agendaren Borondatezko jarraipen Txostena aurkezten.

Orduetik, urtero egiten jarraitu du. 2022ko irailean, Nazio Batuek erabaki zuten Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza orokorra Euskadin kokatzea, Bilbon.

Azken urteotan, 2030 Agenda betetzeko konprometitzen duten eta konprometitzen gaituzten “azpiegiturak” eraiki ditugu euskal erakundeok: GJHen arloko koordinazio- eta zuzendaritza-organo instituzional bat sortzea; plangintza estrategikorako eta proiektu bultzatzaileak definitzeko dokumentu bat garatzea; ebaluazio-sistema eta adierazleak ezartzea, propioa eta erakundeartekoa; agenda globala hedatzeko programak bultzatzea, kontratu sozial berri gisa; eta 2030 Agenda Euskadi Foroa eratzea, maila anitzeko eta erakundearteko gobernantza-eremu gisa.

2030 Agenda Euskadi Foro honetan euskal erakunde guztiak, unibertsitateak eta gizarte zibilaren eta lankidetzaren publiko-pribatuaren ordezkariak daude. 2023ko martxoaren 15ean egindako laugarren Osoko Bilkuran, Euskadiko Lehendakari Iñigo Urkullu Renteriak **Now, 2030 Proposamena** aurkeztu zuen. Proposamen hori Nazio Batuei zuzentzen zaie, 2023ko irailerako aurreikusita dagoen GJHen Goi-bileraren testuinguruan, eta EBko erakundeei eta Garapen Jasangarrirako Helburuen sustapenean inplikaturik dauden nazioarteko sare eta erakunde guztiei ere bidaltzen zaie.

Diagnostikoa

Now, 2030 *Proposamena* egoeraren diagnostiko batean oinarritzen da, eta hiru azterketa-gakoetan laburbil daiteke:

- 2019an, nazioarteko adostasun zabala zegoen GJHak betetzeari buruzko diagnostikoari dagokionez: 2030 Agendak bultzatutako eraldaketa-prozesua ez zen behar bezain azkarra izaten ari, eta ez zuen behar besteko eragina izaten ari. Izan ere, eta horregatik, urte hartako irailean, Nazio Batuen 74. Batzar Nagusian, Antonio Guterres idazkari nagusiak dei egin zien gobernuei, enpresei eta gizarte zibilarri helburu globalen gaineko ekintza areagotzeko, eta hurrengo 10 urteak Ekintzaren Hamarkada izendatu zituen.
- 2020tik 2023ra bitartean pandemia bat jasan dugu, eta horrek desberdintasun-arrakalak handitu ditu, bai herrialde barruan, bai herrialdeen artean. Gainera, eta oraindik ere, Errusiak Ukrainan egindako inbasioak eragindako gerraren erdian gaude. Giza ondorio eta ondorio humanitario onartezinak pairatzen ditugu, eta mundu osoan jasaten ditugu ondorio suntsitzaille energetikoak, ekologikoak, inflaziozkoak eta sozioekonomikoak. 2019an baieztatzen bazen denbora agortzen ari zela eta ez genuela behar beste aurreratu, 2023ko garai honetako balantzeak aitortu behar du zailtasunak eta oztopoak hazi egin direla eta munduan GJHak betetzeko iragarpenak okerrera egin duela eta modu kezagarrian negatiboa dela.
- Hala eta guztiz ere, GJHei buruzko diagnostikoan badago zerbait 2015etik aldatu gabe mantentzen dena. 2030 Agenda premia eta aukera bat da. Planeta gisa, premiazkoa da aurrera egitea hura betetzeko, eta erronka hori pasatzen utzi ezin dugun trena dela onartzea. Nahiz eta helburu globalak ez garatu eta igarotzen ari garen testuingurua kontrakoa izan, erantzun bat behar da. *Ekintzaren Hamarkadak*, orain, *Erre-akzio 7 urte* behar ditu. Pizgarri bat. Inflexio-puntu bat. Ezinbestekoa da Garapen Jasangarrirako Helburuak globalizatzeko, kokatzeko eta pertsonalizatzeko konpromiso praktiko, komun, positibo eta eraikitzailea.

Pasiboki onartzen badugu GJHekiko egungo inertziak devaluazio-ibilbidearekin jarraitzea, aldaketarik gabe 2030era arte, azken balantzea negatiboa izango da argi eta garbi. **Now, 2030** *Proposamena* GJHen garapen eta betetze globalaren inguruko kezkatik sortu da. Nazio Batuek 2023ko irailean deitutako GJHen Goi-bilera inflexio-puntu bat bultzatzeko benetako aukera izan dadin eta aukera galdua izan ez dadin lagundu nahi du.

Now, 2030 *Proposamenaren* helburu orokorra da nazioarteko adostasun handi baten beharra iradokitzea, 2023. urtea inflexio-puntu gisa taxutuko duena, globala eta tokikoa, 2030 Agendaren garapenean eta GJHen betetzean.

Proposamen honen helburu espezifikoak honako hauek dira:

- Lehena eta garrantzitsuena, balantzea pixkanaka eta etengabe hobetzea, une honetan 2030 Agendaren helburuetatik espero daitekeenarekin alderatuta.
- Nazio Batuetan 2023ko irailerako aurreikusita dagoen GJHen Goi-bilera dela eta, 2015ean 2030 Agenda sinatu zuten erakundeen eskakizun-maila handitzea.
- GJHen garapen eta betetze eskasaren azterketa kritikoan eta autokritikoan oinarritutako aitorten instituzionala eta nazioartekoa sustatzea.
- Erreakzio global eta lokala pizten laguntzea, 2030era arte geratzen diren urteetan GJHen garapena eta betetzea bultzatzeko.
- Tokiko, eskualdeko eta estatukoak ez diren gobernuek GJHen kokapenean duten zeregina bultzatzea, eta 2030 Agendaren baterako gobernantza global hobean parte hartzea ere bai.

Now, 2030 Proposamenaren bidez eta 2023ko irailaren 19an eta 20an egingo den GJHen Goi-bilera dela eta, Nazio Batuei eta 2030 Agendarekin konprometita dauden nazioarteko eta Europako erakunde nagusiei honako hau iradokitzen diegu:

- Goi-bilera honen formatua eta ondorioak zabaltzea, GJHekiko konpromiso global eta lokalean benetako inflexio-puntua lortzen lagun dezan, estatuburuen eta gobernuburuen goi-bilera formal berri batera soilik mugatuko ez den prozesu baten bidez.
- Prozesu hori diseinatzea, parte-hartze zabalaren bidez, 2030 Agendaren ebaluazioa bateratzea ahalbidetzeko, 2015etik 2023ra, eta GJHetarako premiazko lehentasunak zehaztea, 2023tik 2030era.
- 2015-2023 aldirako ebaluazio-eredu komun zehatz eta erabilgarri bat prestatzea eta alde zaureratik aurkeztea, bai tokiko, eskualdeko edo estatuko edozein gobernu edo instituzioentzat, bai enpresa pribatuentzat edo gizarte zibileko erakundeentzat.
- 2030era arteko lehentasun nagusien panel argi eta erraz bat prestatzea eta aurkeztea. Horren formatuak aukera emango du helburu partekatuak eta errealitate geografiko, sozial, antolamenduzko edo instituzional bakoitzari dagozkion xedeak jasotzeko.
- Azkenik, **Now, 2030 Proposamenak** erakundeen eta antolakundeen Konpromiso Zehatzen Adierazpena prestatzea eta aurkeztea proposatzen du. Adierazpen horren premisa da onartzea luzamendurik ez dagoela eta GJHekiko konpromisoa orain dela edo ez dela izango. **2030 orain da.**

Now, 2030 Proposamenak konpromiso bat eskatzen eta eskaintzen du. 2030era arte geratzen diren urteetan konpromiso irmoaren erreakzio globala eskatzen du. Tokiko, eskualdeko eta estatukoak ez diren gobernuak GJHen kokapenean duten zeregina eta konpromisoa eskaintzen eta aldarrikatzen du, baita 2030 Agendaren baterako gobernantza global hobean parte hartzea ere.

Now, 2030 Proposamenaren helburua inflexio-puntu bat piztea da, edo bestela esanda, Ekintzaren Hamar-kadarako deia betetzeko *Erre-Akzio* bat.

Proposamen honen edukia eta helburu horren balizko lorpena lotzen dituen ibilbidea printzipio metodologiko batek deskribatzen du:

- Ebaluazio zintzo bat diziplinan zorrotasunez egitea eta lehentasunak modu konprometituan azaltzea da pizgarri hori bultza dezakeen tresna metodologikoa. Arriketa honek, gainera, *zehatzaren metodologia* izan behar du buru. 2030era arte geratzen diren urteetan, Agendak abstrakzio gutxiago eta gauzatze gehiago behar ditu.

Jakina, printzipio horrek ez du *per se* bermatzen lortu nahi den helburua lortzea; baina ezinbesteko baldintza da 2030 Agenda hitzetatik ekintzetara pasatzeko eta konpromiso irmoa izan dadin.

2030 Agenda Euskadi Foroari aurkeztu ondoren, Iñigo Urkullu Renteria Euskadiko Lehendakariak **Now, 2030** *Proposamena* bidaliko dio Amina Mohammed Nazio Batuen Idazkariorde Nagusiari.

Era berean, Nazio Batuetara bidalitako proposamenaren berri emango die Ursula von der Leyen Europako Batzordeko Presidenteari, Charles Michel Europako Kontseiluko Presidenteari, Roberta Metsola Europako Parlamentuko Presidenteari eta Mathias Cormann ELGAko Idazkari Nagusiari.

Aldi berean, eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza ordezkatzuz, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak proposamena aurkeztuko dute GJHen sustapenean inplikaturik dauden eta presentzia edo parte-hartzea duten nazioarteko erakunde eta sare guztietan.